

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

2859

74/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, zeinaren bidez zenbait elkarteren onura publikoaren aitorpena ezeztatzen baita.

Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 42. artikulua ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean inskribatuta dauden elkarteak onura publikokotzat aitortu ahal izango dira, baldin eta elkarteok, beren jardueren bitartez, interes orokorra edo guztien ongia lortzen laguntzen badute, eta, horretarako, eskuzabaltasun-, altruismo-, elkartasun- eta aniztasun-balioak nabarmen gauzatzen badituzte.

Onura Publikoko Elkarteei eta beren Babesletzari buruzko Erregelamendua onartzen duen uztailaren 29ko 146/2008 Dekretuak arautzen ditu onura publikoa aitortzea lortzeko, mantentzeko, ezeztatzeko eta galtzeko bete behar diren baldintzak eta prozedura.

Bestalde, aipatutako ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 44. artikulua, onura publikoko elkarten betebeharrei buruzkoak, ezartzen du onura publikoko aitorpena duten elkarteek aurreko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak aurkeztu behar dituztela Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean, ekitaldi hori amaitu eta hurrengo sei hilabeteen barruan; horrekin batera, ekitaldi horretan elkarteek burutu dituzten jarduerak deskribatzen dituen txosten bat ere aurkeztu behar dute.

Ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 45. artikulua arabera, onura publikoaren aitorpena Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez ezeztatu ahal izango da, elkarteari entzunaldia eman ondoren, baldin eta aitortpen hori eragin zuten betekizunak betetzen jarraitzen dela egiaztatzen ez bada edo elkarte-mota horri dagozkion betebeharrak behin eta berriz eta modu larrian urratzen badira.

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzaren txostenean jakinarazten denez, Babesletzak egiaztatu du eranskinean zehaztutako elkarteek behin eta berriz egin behar hori bete ez dutela. Beraz, dagozkion informazio-eginbideak egin eta onura publikoa ezeztatzeko prozedurak bideratu ondoren, uztailaren 29ko 146/2008 Dekretuaren 25. artikulua eta hurrengoak betez, egiaztatutzat jotzen da Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 44. artikuluan ezarritako eginbeharren ez betetzea.

Uztailaren 29ko 146/2008 Dekretuaren 27.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, instrukzioa amaitu eta aurkeztutako alegazioak eta jasotako agiri berriak aztertu ondoren irizpide berari eutsi behar bazaio, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren irizpenean jarriko du onura publikoa ezeztatzeko dekretu-proiektua.

Ondorioz, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren proposamenez, emandako txostena ikusi ondoren, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2023ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Eranskinean zehaztutako elkarten onura publikoaren aitorpena ezeztatzea, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 44. artikulua, onura publikoko elkarten betebeharrei buruzkoa, ez betetzeagatik.

2. artikulua.— Agintzea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila eranskinean zehaztutako elkarteen onura publikoaren aitorpenaren ezeztatzea.

3. artikulua.— Dekretu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, dekretua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Nolanahi ere, aukerako berraztertze-errekurtsoa ere aurkez daiteke.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko maiatzaren 30ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.

ERANSKINA

Zenbakia	Izena
AS/B/00232/1986	IPES Elkarte - Gizarte Ikerketarako Eragilea
AS.R.C.B.00082	Asociación de Desarrollo Comunitario «Gazteleku»
AS.R.P.B.00015	Asociación Centro Zamorano Castellano-Leonés «San Atilano» en Barakaldo